


Euskal AEko eraikuntzaren sektoreko jarduera % 1,5 murriztu zen 2024ko hirugarren hiruhilekoan

Eraikingintza % 1,7 jaitsi da eta Ingeniaritza zibila % 1,1

Euskal AEko eraikuntzaren sektoreko jarduera, 2024ko hirugarren hiruhilekoan, prezio arruntetan, aurreko urteko hiruhileko berean baino % 1,5 txikiagoa izan da, Eustaten datuen arabera.

Hiruhileko honetako prezio arrunten urte arteko jaitsiera, egutegitik ondorioak atera ondoren, *Eraikingintza* azpisektorearen (% 1,7ko jaitsiera) eta *Ingeniaritza zibila* azpisektorearen (% 1,1eko jaitsiera 2023ko hirugarren hiruhilekoaren aldean) portaera negatiboagatik gertatu da.

≡ Euskal AEko Eraikuntzaren koiunturako indizea obra-motaren arabera Urte arteko tasa. Egutegiko eraginak zuzenduta



Iturria: Eustat. Eraikuntzaren koiunturako indizea (EKI)

Sektorearen hiruhileko honetako jarduera aurreko hiruhilekokoarekin alderatuz gero, 2024ko bigarren hiruhilekoan Eraikuntzaren Koiunturako Indizea % 1,2 igo da termino nominaletan edo prezio arruntetan, dagozkion urtaro-ondorioak kenduta. *Eraikingintza* % 3,1 egin du gora aurreko hiruhilekoaren aldean, eta *Ingeniaritza zibila* (% -4,3).

Euskal AEko eraikuntzaren koiunturako indizea. Aldakuntza tasak. Uneko prezioak (p). 2024/III

	Uneko prezioak		
	t/t-4	t/t-1	At/At-4
Indize orokorra	-1,5	1,2	0,2
Eraikinak	-1,7	3,1	-2,7
Ingeniaritza zibila	-1,1	-4,3	6,4
Araba/Álava	-0,1	2,4	-0,2
Bizkaia	-1,9	1,2	0,9
Gipuzkoa	-1,5	0,9	-0,9
Indize orokorra higiezinaren sustapenik gabe	-1,2	0,5	-0,1
Higiezinaren sustapenik gabeko eraikuntza	-1,3	2,0	-3,0
Landunkopuruaren indizea	-6,3	-0,6	-4,4

Oinarria 2021=100

(p)Behinbehineko datuak

t / t-4 Urte arteko aldakuntza-tasa. Egutegi eraginak zuzendutako datuak

t/t-1 Hiruhileko arteko aldakuntza-tasa. Datu desestazionalizatuak

At/At4 Urte arteko aldakuntza-tasa metatutako aldian, urteko 1. hiruhilekotik behatutako azken hiruhilekora arte (At), aurreko urtean metatutako aldi beraren aldean (At-4). Egutegiaren ondorioen datu zuzenduak

Data 2024ko Azaroaren 25a

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren koiunturako indizea

Bizkaian eraikuntzaren sektorearen jarduera urte arteko % 1,9 jaitsi da 2024ko hirugarren hiruhilekoan, Gipuzkoan % 1,5 eta Araban % 0,1. Aurreko hiruhilekoaren aldean, Eraikuntzaren Koiunturako Indizea % 0,9 igo da Gipuzkoan, % 1,2 Bizkaian eta % 2,4 Araban.

Higiezinaren sustapenaren jardueratik eragina atera ondoren, *Eraikingintza* jarduera, urte artean, 2023ko hiruhileko berean baino % 1,3 txikiagoa da; hiruhileko artean, berriz, % 2,0 hazi da. Eraikuntzaren sektorea, oro har, *Higiezinaren sustapena* kontuan hartu gabe, % 1,2 jaitsi da 2023ko hirugarren hiruhilekoaren aldean, eta % 0,5 igo da 2024ko bigarren hiruhilekoaren aldean.

Langile okupatuaren indizea, aurreko hiruhilekoaren aldean % 0,6 jaitsi ondoren, 2024ko hirugarren hiruhilekoan 2023ko hiruhileko berean ikusitakoa baino % 6,3 txikiagoa izan da.

Informazio-oharra

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie informazioa biltzen lagundu duten establezimendu guztiei. Horiei esker, hiruhileko honetako indizea laginaren % 91,5eko estaldurarekin kalkulatu da.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tf: 945 01 75 62